

Ondasunen esportazioak % 2,3 murriztu ziren 2025eko azaroan Euskal AEn

2025eko lehen hamaika hilabeteetako metatuan, esportazioek % 4,1 egin dute atzera, produktu energetikoek eraginda (–% 38,0)

2025eko azaroan, Euskal AEko **ondasunen esportazioek** % 2,3 egin zuten behera urte arteko tasan, Eustaten datuen arabera. Zenbatekoa 2.461,8 milioi eurokoa izan zen, aurreko urteko hilabete bereko 2.518,9 milioi euroen aldean. *Produktu energetikoen* esportazioak % 28,5 handitu ziren eta *ez-energetikoenak* % 3,0 murriztu ziren.

Hilabete honetan, merkataritza-saldoa positiboa da (257,7 milioi euro inguru) eta estaldura-tasa % 111,7koa.

Araba da bilakaerarik negatiboena izan duen lurralde historikoa (–% 13,9). Gipuzkoan esportazioak % 6,7 igo dira eta Bizkaian % 1,1.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. Azaroa 2025

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Azaroa			Azaroa		
	2024	2025	Gehikuntza (%)	2024	2025	Gehikuntza (%)
EUSKAL AE						
HILABETE, GUZTIRA	2.518.911	2.461.793	-2,3	2.280.704	2.204.144	-3,4
ENERGIAZKO GAIAK	56.403	72.475	28,5	579.296	388.215	-33,0
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	2.462.508	2.389.318	-3,0	1.701.408	1.815.929	6,7
URTEKO METATUA	28.723.929	27.550.133	-4,1	25.114.874	24.556.869	-2,2
ENERGIAZKO GAIAK	1.893.862	1.173.805	-38,0	6.623.937	5.143.358	-22,4
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	26.830.067	26.376.328	-1,7	18.490.938	19.413.511	5,0
ARABA / ÁLAVA						
HILABETE, GUZTIRA	867.579	747.125	-13,9	593.120	740.341	24,8
URTEKO METATUA	8.413.562	8.254.111	-1,9	5.665.052	6.325.434	11,7
BIZKAIA						
HILABETE, GUZTIRA	842.206	851.260	1,1	1.242.299	1.007.283	-18,9
URTEKO METATUA	11.094.418	9.872.465	-11,0	14.485.390	13.049.369	-9,9
GIPUZKOA						
HILABETE, GUZTIRA	809.126	863.409	6,7	445.285	456.520	2,5
URTEKO METATUA	9.215.948	9.423.556	2,3	4.964.433	5.182.067	4,4

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Data 2026ko Urtarrilaren 20a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Euskal AEko **ondasunen inportazioek** % 3,4ko jaitsiera izan zuten eta 2.204,1 milioi euro izatera iritsi ziren. Inportazio *energetikoak* % 33,0 murriztu ziren eta *ez-energetikoak* % 6,7 hazi ziren. Arabako inportazioak % 24,8 handitu dira eta Gipuzkoakoak % 2,5; Bizkaikoak, aldiz, % 18,9 murriztu dira.

Produktuen arabera (muga-zergen partidak)

Zehatzago aztertuz, ikusten da 969 **esportazio-partiden** rankingaren buruan honako hauek daudela: "10 pertsona baino gutxiagoko turismoak", 274,4 milioi euro merkaturatuta eta % 16,5eko beherakadarekin aurreko urteko hilabete beraren aldean; "Automobilentzako zatiak eta osagarriak" (142,7 milioi euro eta % 19,9ko beherakada); "Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak" (136,0 milioi euro esportatu eta % 5,5 gutxiago); "Petrolioaren olio finduak" (68,9 milioi euro eta % 75,9 gehiago); eta "Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profilak" (bosgarren lekuan), 59,5 milioi euroekin, eta, kasu honetan, % 25,3ko igoerarekin. Bost partida horiek, azaroan, guztizko komertzializatuaren % 27,7 izan ziren, guztira 681,5 milioi euroko balioarekin.

Euskal AEko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Azaroa 2025

	2024	2025	2025 (%)	2025/2024 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	2.518.911	2.461.793	100,0	-2,3
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	328.803	274.416	11,1	-16,5
Automobilentzako zati eta osagarriak	178.130	142.689	5,8	-19,9
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	143.927	135.978	5,5	-5,5
Petrolioaren olio finduak	39.174	68.921	2,8	75,9
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	47.453	59.470	2,4	25,3
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	56.118	54.042	2,2	-3,7
Turborreaktoreak, turbopropulsaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	34.728	48.421	2,0	39,4
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	43.037	47.944	1,9	11,4
Kautxuzko pneumatiko berriak	80.689	38.722	1,6	-52,0
Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak	25.962	36.868	1,5	42,0
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	23.175	31.848	1,3	37,4
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketarako euskarriak	31.684	31.668	1,3	-0,1
Transformadore elektrikoak, bihurtailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina	28.667	31.247	1,3	9,0
Kobre findu gabe; fintze elektrolitikoak kobre anodoak	25.980	29.414	1,2	13,2
Burdina edo altzairuzko gainerako enbrazaturak	29.791	28.930	1,2	-2,9
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	20.872	28.065	1,1	34,5
Xafien bidez eraikitutako, barrak, profilak, tutuak eta fundicio-eta, burdinako edo altzairuzko antzeko	25.611	25.506	1,0	-0,4
Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiari-autoak, ekipaje-furgoiak, posta-autoak eta bestelakoak	31.085	25.102	1,0	-19,2
Ardoa, mahats freskoarena	26.325	23.702	1,0	-10,0
Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste enbrazatura moldeatutako batzuk	20.365	23.612	1,0	15,9
Ontziak eta paketatutako aparatuak garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatutako makinak	22.782	22.797	0,9	0,1
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	22.858	22.606	0,9	-1,1
Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak, etab.	21.592	21.604	0,9	0,1
Aduana-tarifan berariaz jasota ez dauden merkantziak	27.162	21.011	0,9	-22,6
Zura, plastikoa edo antzeko gai gogorrak lantzeko makina-erremintak (iltzatzea, gratatzea, mihiztatzea, zerratzea, arrabotatzea, harriz lantzea, zulatzea...)	720	20.948	0,9	2.810,0

(p)Behinbehineko datuak

Data 2026ko Urtarrilaren 20a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

25 partidarik garrantzitsuenen artean, honako hauen urte arteko hobekuntzak nabarmentzen dira: "Turborreaktoreak, turbopropulsaileak eta gainerako gas-turbinak, piezak eta osagarriak barne" (% 39,4), "Hamar pertsona edo gehiago —gidaria barne— garraiatzeko ibilgailu automobilak" (% 42,0) eta "Zura, plastikoa edo antzeko gai gogorrak lantzeko makina-erremintak (iltzatu, gratatu, mihiztatu, zerratu, eskuilatu, egokitu, zulatu...)" (0,7 milioitik 21,0 milioira igarotzen da).

"Kautxuzko pneumatiko berrien" beherapena ere aipatzekoa da, 38,7 milioi esportatu baitira, hau da, aurreko urtean baino 42,0 milioi gutxiago; hortaz, % 52,0 murriztu da.

Arabian, hamar partida nagusien artean, "10 pertsona baino gutxiagoko turismoen" esportazioen jaitsiera nabarmendu behar da, 254,1 milioi esportatu baitira —aurreko urtean baino 55,5 milioi gutxiago—, hau da, % 17,9ko murrizketa egon da. "Automobilentzako zatiak eta osagarriak" (–% 43,9) eta "Kautxuzko pneumatiko berriak" (–% 71,9) ere jaitsi egin dira.

Aitzitik, "Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak" (% 139,7) eta " Hodiak eta hodian osagarriak [adibidez: loturak (erragailuak), ukondoak, zorroak], nikelezkoak" (% 946,7) salmentek gora egin dute.

Automobilgintzaren sektoreko partidak, aurreko urteko azaroarekin alderatuta, 119,0 milioi jaitsi dira (% 21,9), hots, 544,3 milioi eurotik 425,3 milioi eurora.

Arabako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Azaroa 2025

	2024	2025	2025 (%)	2025/2024 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	867.579	747.125	100,0	-13,9
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	309.631	254.102	34,0	-17,9
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	143.392	134.783	18,0	-6,0
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	36.274	29.486	3,9	-18,7
Ardoa, mahats freskoarena	24.698	22.768	3,0	-7,8
Automobilentzako zati eta osagarriak	38.402	21.540	2,9	-43,9
Motorra duten edo ez duten aireontzien zatiak, tripulatuak izan edo ez, eta satellite eta ibilgailu espazialen zatiak	13.851	15.931	2,1	15,0
Kautxuzko pneumatiko berriak	52.895	14.857	2,0	-71,9
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	5.293	12.691	1,7	139,7
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketarako euskarriak	12.818	11.104	1,5	-13,4
Hodiak eta hodian osagarriak [adibidez: loturak (erragailuak), ukondoak, zorroak], nikelezkoak	809	8.469	1,1	946,7

(p)Behinbehineko datuak

Data 2026ko Urtarrilaren 20a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Bizkaian, hamar partida nagusien artean, honako hauen esportazioek izan duten igoera nabarmendu da: "Petrolioaren olio finduak" (66,5 milioi euro esportatu dira, aurreko urtean baino 29,3 milioi euro gehiago, hau da, % 78,7ko igoera), "Turborrektoreak, turbopropulsaileak eta gainerako gas-turbinak, piezak eta osagarriak barne" (48,4 milioi euro esportatu dira, hau da, % 40,2 gehiago); eta "0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xaflak eta tirak" (22,5 milioi euro esportatu dira, hau da, % 50,3 gehiago).

Bizkaiko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Azaroa 2025

	2024	2025	2025 (%)	2025/2024 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	842.206	851.260	100,0	1,1
Petrolioaren olio finduak	37.215	66.506	7,8	78,7
Automobilentzako zati eta osagarriak	67.270	52.084	6,1	-22,6
Turborreaktoreak, turbopropulsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	34.475	48.347	5,7	40,2
Kobre findu gabe; fintze elektrolitikoak kobre anodoak	25.980	29.414	3,5	13,2
Kautxuzko pneumatiko berriak	27.305	23.409	2,7	-14,3
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	14.981	22.509	2,6	50,3
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	18.330	19.960	2,3	8,9
Transformadore elektrikoak, bihurgailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina	20.481	19.445	2,3	-5,1
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	18.068	17.747	2,1	-1,8
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketarako euskarriak	14.692	17.632	2,1	20,0

(p)Behinbehineko datuak

Data 2026ko Urtarrilaren 20a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Aitzitik, behera egin dute salmentek honako arlo hauetan: "*Automobilentzako zatiak eta osagarriak*" (52,1 milioi euro esportatu dira, aurreko urtean baino 15,2 milioi euro gutxiago, hau da, % 22,6ko murrizketa) eta "*Kautxuzko pneumatiko berriak*" (–% 14,3).

Gipuzkoako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Azaroa 2025

	2024	2025	2025 (%)	2025/2024 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	809.126	863.409	100,0	6,7
Automobilentzako zati eta osagarriak	72.457	69.065	8,0	-4,7
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	44.717	56.852	6,6	27,1
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	40.551	42.190	4,9	4,0
Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak	25.959	36.834	4,3	41,9
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	17.761	25.944	3,0	46,1
Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiariautoak, ekipaje-furgoiak, posta-autoak eta bestelakoak	31.084	25.083	2,9	-19,3
Ontziak eta paketatzeko aparatuak garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatzeko makinak	21.450	21.140	2,4	-1,4
Zura, plastikoa edo antzeko gai gogorak lantzeko makina-erremintak (iltzatzea, grapatzea, mihiztatzea, zerratzea, arrabotatzea, harriz lantzea, zulatzea...)	718	20.947	2,4	2.815,5
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	19.868	19.903	2,3	0,2
Metal arruntzeko giltzarriak, sarraila, morroilo eta giltzak	16.091	17.604	2,0	9,4

(p)Behinbehineko datuak

Data 2026ko Urtarrilaren 20a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Gipuzkoan, honako hauetan izandako igoerak azpimarra daitezke: "*Hamar pertsona edo gehiago —gidaria barne— garraiatzeko ibilgailu automobilak*" (% 41,9), 36,8 milioi euro esportatuta, "*Trenbideetarako edo antzekoetarako ibilgailuen zatiak*" (% 46,1), 25,9 milioi euro esportatuta, eta "*Zura, plastikoa edo antzeko gai gogorak lantzeko makina-erremintak (iltzatu, grapatu, mihiztatu, zerratu, eskuilatu, egokitu, zulatu...)*" (21,0 milioi euro esportatu dira, aurreko urtean baino 20,2 milioi euro gehiago). Aitzitik, salmentek behera egin dute honako hauetan: "*Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiari-autoak, ekipaje-furgoiak, posta-autoak eta bestelakoak*" (2024ko azaroan baino 6,0 milioi euro gutxiago, hau da, % 19,3ko jaitsiera), eta "*Automobilentzako zatiak eta osagarriak*" (69,1 milioi euro esportatu ziren, hau da, % 4,7 gutxiago).

"Beroan ijeztutako produktu lauak, aleatu, txapatu edo estali gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak > 599 mm" partidako inportazioak % 80,7 igo dira, eta "Petrolioaren edo mineral bituminosoaren olio gordinak" partidakoak, berriz, % 27,1 jaitsi dira

Inportazioak muga-zergen partiden arabera aztertuz gero, "Beroan ijeztutako produktu lauak, aleatu, txapatu edo estali gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak > 599 mm" igoera nabarmena izan duela ikus daiteke, 21,9 milioi eurotik 39,6 milioi eurora igaro baita. Era berean, gorakada esanguratsua izan da honako alderdi hauetan: "Polarimetroak, errefraktometroak, espektrometroak, gasen edo keen analizagailuak eta analisi fisiko edo kimikoetarako gainerako tresnak eta aparatuak", 165,4 milioi euroekin; "Jasotzeko makinak edo aparatuen parteak eta garraiagailuak, nibelatzeko makinak, pala mekanikoak, hondeamakinak, zulagailuak, etab." (% 238,7) eta "Xaflen bidez eraikuntzak, barrak, profilak, tutuak eta galdaketako, burdinako edo altzairuko antzekoak" (% 526,7). Aitzitik, partidarik garrantzitsuenak, "Petrolioaren edo mineral bituminosoaren olio gordinak", guztizkoaren % 12,4 hartzen du, eta inportazioek % 27,1 egin dute behera, 376,1 milioi eurotik 274,4 milioi eurora. "Petrolioaren olio finduak" ere murriztu egin da (-% 26,8): 154,2 milioi eurotik 112,8 milioi eurora.

Jatorri/helmuga herrialdeak, 2025eko azaroa

Hilabete honetan, ranking esportatzailearen lehen postuetan honako hauek daude:

- Alemania:** 361,3 milioiko balioa duten produktuak jaso ditu gure erkidegotik, % 97,5eko estaldura-tasarekin.
- Frantzia:** 359,0 milioi euroko ondasunak esportatu dira herrialde horretara, % 219,4ko estaldura-tasarekin.
- Erresuma Batua:** 169,0 milioi euroko balioagatik esportatu da bertara, % 505,7ko estaldura-tasarekin.
- Italia:** gure esportazioetatik 155,8 milioi herrialde horretara bideratu dira, eta estaldura-tasa % 136,5ekoa izan da.
- Ameriketako Estatu Batuak:** herrialde horretara 119,0 milioi euroko salmentak egin dituzte, % 100,3ko estaldura tasarekin.

Bost herrialde horiek esportazioen guztizkoaren % 47,3 hartzen dute; horietako hiru EB27koak dira; bertan biltzen da esportazioen % 63,6.

Hil honetan, inportazio handienak herrialde hauetatik egin dira, hurrenkera honetan: Alemania (370,6 milioi), Japonia (180,4), Frantzia (163,6 milioi), Txina (137,1 milioi) eta Mexiko (130,0 milioi).

2025eko lehen hamaika hilabeteetako metatuan, esportazioek % 4,1 (1.173,8 milioi euro gutxiago) egin dute atzera 2024ko aldi berarekin alderatuta

Lehenengo hamaika hilabeteetan, eta Euskal AEko esportazioen kasuan, % 4,1eko jaitsiera erregistratu da aurreko urteko aldi beraren aldean, hau da, 1.173,8 milioi euro gutxiago izan dira. Esportazioen zenbatekoa, berriz, 27.550,1 milioikoa izan da aldi horretan.

Bizkaiko esportazioak Euskal AEko handienak dira, 9.872,5 milioi euro guztira; Gipuzkoakoak 9.423,6 milioi euro eta Arabakoak 8.254,1 milioi euro. Bizkaiko esportazioek % 11,0ko jaitsiera izan dute, eta Arabakoek % 1,9koa. Gipuzkoakoak aurreko urtekoak baino % 2,3 gehiago dira.

Produktu mota kontuan hartuta, erkidego osoan "Produktu ez-energetikoak" izan ziren nagusi esportazioan, 26.376,3 milioi euroekin, 2024ko lehen hamaika hilabeteetan baino % 1,7 gutxiago. Murritzeta hori ez zen homogeneousa izan; Bizkaiko esportazio ez-energetikoak % 5,4 eta Arabakoak % 1,9 jaitsi ziren bitartean, Gipuzkoako esportazioek aurreko urtekoak gainditu zituzten, % 2,3an. "Produktu energetikoen" esportazioek % 38,0ko atzerapena izan dute urte arteko konparazioan.

"10 pertsona baino gutxiagoko turismoak" partida esportazioen artean liderra da 2.822,1 milioi merkaturarekin, eta % 12,7ko igoera izan du. Muga-zergen partida nagusien artean, hazkunde esportatzaile handienak honako hauek izan dituzte: "Trenbideetarako edo antzekoetarako ibilgailuen zatiak" (458,6 milioi esportatu eta % 84,0ko gehikuntza) eta "Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiari-autoak, ekipaje-furgoiak, posta-autoak eta bestelakoak" (390,5 milioi esportatu eta % 82,8ko gehikuntza). Aitzitik, partida nagusietako hirutan atzerapenak izan dira: "Kautxuzko pneumatiko berriak" (-% 36,0 eta 347,3 milioi gutxiago), "Petrolioaren olio finduak" (-% 18,7 eta 238,2 milioi gutxiago) eta "Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak" (-% 15,4 eta 331,3 milioi gutxiago) eta

Euskal AEko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera, urteko metatua (p). Azaroa 2025

Kodea	Izendapena	2024	2025	2025 (%)	2025/2024 (%)
	ESPORTAZIOAK GUZTIRA	28.723.929	27.550.133	100,0	-4,1
1 8703	10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	2.504.973	2.822.089	10,2	12,7
2 8708	Automobilentzako zati eta osagarriak	2.156.604	1.825.309	6,6	-15,4
3 8704	Zamak garraiatzeko ibilgailu automobila	1.369.019	1.307.943	4,7	-4,5
4 2710	Petrolioaren olio finduak	1.272.683	1.034.523	3,8	-18,7
5 4011	Kautxuzko pneumatiko berriak	965.707	618.432	2,2	-36,0
6 7216	Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	587.651	552.820	2,0	-5,9
7 8481	Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	520.522	539.091	2,0	3,6
8 7304	Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	476.330	458.618	1,7	-3,7
9 8607	Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	249.191	458.579	1,7	84,0
10 8411	Turboreaktoreak, turbopropulsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	376.375	448.770	1,6	19,2
11 8605	Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiariautoak, ekipaje-furgoiak, posta-autoak eta bestelakoak	213.652	390.477	1,4	82,8
12 8504	Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	333.448	373.700	1,4	12,1
13 7606	0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafak eta tirak	302.187	362.357	1,3	19,9
14 7326	Burdina edo altzairuzko gainerako enbriaturak	365.355	339.409	1,2	-7,1
15 8537	Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketatara euskarriak	281.030	317.802	1,2	13,1
16 8428	Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	287.561	268.898	1,0	-6,5
17 8702	Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobila	217.157	264.786	1,0	21,9
18 9990	Aduana-tarifen berariaz jasota ez dauden merkantziak	364.020	262.707	1,0	-27,8
19 7325	Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste enbriatura moldeatu batzuk	226.786	244.778	0,9	7,9
20 7222	Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	235.182	224.905	0,8	-4,4
21 8483	Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak, etab.	242.508	222.617	0,8	-8,2
22 7308	Xafen bidez eraikitutako, barrak, profilak, tutuak eta fundicioen-etako, burdinako edo altzairuko antzeko	287.707	222.187	0,8	-22,8
23 8301	Metal arruntzko giltzarriak, sarraila, morrolio eta giltzak	220.068	219.775	0,8	-0,1
24 2204	Ardoa, mahats freskoarena	218.842	214.262	0,8	-2,1
25 8501	Motor eta sorgailu elektrikoak (ekipo elektrogenoak izan ezik)	190.335	209.902	0,8	10,3

(p)Behinbehineko datuak

Data 2026ko Urtarrilaren 20a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

2025eko lehen hamaika hilabete hauetako rankingaren arabera, Alemania da herrialde hartzaile nagusia, esportazioen guztizkoaren % 15,0ekin 4.128,6 milioi euroko balio baterako. Herrialde horretatik oso hurbil dago Frantzia, 4.079,6 milioi euroekin (gustizkoaren % 14,8). Ondoren datoz Erresuma Batua (1.809,8 milioi eta % 6,6), Italia (1.676,9 milioi eta % 6,1) eta Estatu Batuak (1.581,8 milioi, % 5,7); bost herrialde horien artean Euskadiko esportazioen % 48,2 biltzen da.


Orrialdea: 6 (8)

Euskal AE osorako inportazioen metatua 24.556,9 milioi euro ingurukoa da. Urte arteko alderaketa eginez gero, ikusten da aurreko urteko aldi berean erregistratutakoa baino 558,0 milioi euro (% 2,2) gutxiago dela. Jaitsiera horren arrazoia da Bizkaiak (13.049,4 milioi) % 9,9 gutxiago erosi duela (–1.436,0 milioi). Bestalde, Arabako inportazioak 660,4 milioi euro (6.325,4 milioi guztira), eta Gipuzkoakoak 217,6 milioi euro igo ziren (5.182,1 milioi euro guztira).

"Produktu ez-energetikoak" partidaren inportazioak % 5,0 igo dira, baina "Produktu energetikoen" partidarenak % 22,4 jaitsi dira.

"Petrolioaren edo mineral bituminosoaren olio gordinak" muga-zerga partida inportatzaile garrantzitsuenak % 27,2 egin du atzera, hau da, aurreko urteko aldi berean baino 1.251,4 milioi gutxiago, 3.355,5 milioi guztira. Olio gordinen inportazioen ondoren, "Petrolioaren olio finduak" agertzen dira, 1.498,5 milioi euroekin (–% 5,8). Bien artean guztizkoaren % 19,8 dira.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak, 2025eko urtariletik azarora, 2.993,3 milioi euroko saldo positiboa izan du, eta estaldura-tasa % 112,2 izatera heldu da.



Informazio gehiago:

- Estatistika taulak: [\[ikusi\]](#)
- Datu Bankoa: [\[ikusi\]](#)
- Grafiko interaktiboak: [\[ikusi\]](#)
- Metodología eta kalitatea: [\[ikusi\]](#)
- Definizioak: [\[ikusi\]](#)
- Kode eta izendegiak: [\[ikusi\]](#)
- Txostenak: [\[ikusi\]](#)
- Egutegia: [\[ikusi\]](#)
- Prentsa oharrak: [\[ikusi\]](#)